

- 45. artikulua.– Eskolatzea.
- 46. artikulua.– Ikasleen ikaskuntza ebaluatzea.
- 47. artikulua.– Irakaskuntza-prozesua ebaluatzea.
- 48. artikulua.– Hasierako ebaluazioa.
- 49. artikulua.– Ikasturte-amaierako ebaluazioa.
- 50. artikulua.– Ebaluazio-agiri ofizialak
- 51. artikulua.– Mailaz igotzea Lehen Hezkuntzan.
- 52. artikulua.– Mailaz igotzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- 53. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eta ziurtagiriak.

VII. KAPITULUA

IKASLEAK: ESKOLATZEA, EBALUAZIOA, MAILAZ IGOTZEA ETA TITULAZIOA

LEHENENGO ATALA

ESKOLATZEA

45. artikulua.– Eskolatzea.

1.– Oro har, ikasleak sei urte betetzen duten urtean hasiko dira Oinarrizko Hezkuntzako lehenengo mailan; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, hamabi urte betetzen duten urtean. Ikasleek eskubidea izango dute 18 urte betetzen dituzten urtean amaitzen den ikasturtera arte eskolatuta

egoteko, edo 19 urte izan arte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren ikasturtea bigarren aldiz errepikatzen dutenean.

2.– Ahalmen intelektual handiko ikasleak identifikatu badira eta malgutu egin bazaie Lehen Hezkuntzako eskolaldia, aukera dute Lehen Hezkuntza urtebete lehenago hasteko, edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartzeko hamabi urte betetzen dituzten urte naturala baino lehen.

3.– 16 urte beteta izan eta etapa hori amaitu ez duten ikasleek helduentzako irakaskuntzaren bidez amaitu ahal dituzte ikasketak, baldin eta ezin badute erregimen normalean eskolatuta jarraitu, lanean ari direlako edo errendimendu handiko kirolariak direlako.

BIGARREN ATALA

IKASLEEN EBALUAZIOA

46. artikulua.– Ikasleen ikaskuntza ebaluatzea.

1.– Ikaslearen ikaskuntza ebaluatzea ezin da bereizi gainerako curriculum-osagaietatik.

2.– Oinarrizko Hezkuntzan, maila bakoitzeko arloen eta ikasgaien ebaluazio-irizpideak jarraituko dira (ikastetxeko Curriculum Proiektuan eta programazio didaktikoetan daude zehaztuta). Hezkuntza-premia bereziko ikasleak ebaluatzeko irizpideak arlo edo ikasgai bakoitzeko oinarrizko kompetentzien arabera ezarriko dira dagokion jarduera-planean. Neurririk egokienak ezarriko dira, ebaluazio horiek egiteko baldintzak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitu daitezten.

3.– Ebaluazio jarraituan ikaslearen aurrerabidea ez bada egokia, indartze-neurriak ezarriko dira. Zikloko edo mailako edozein unetan har daitezke neurri horiek, zailtasunak hauteman bezain laster, ikasleek ezinbesteko ikasketak eskura ditzaten heziketa-prozesuan aurrera egiteko.

4.– Lehen Hezkuntzan, kompetentzien ebaluazioa banakakoa, jarraitua eta globala izango da, eta ikasleak curriculumeko arlo guztietan egindako aurrerapenari erreparatuko zaio, oinarrizko kompetentziak kontuan hartuta.

5.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasleen ebaluazioa banakakoa, jarraitua eta ikasgaitan eta esparrutan berezia izango da, oinarrizko kompetentziak aintzat hartuta. Ikasleen ebaluazioa hezitzailea izango da, eta irakaskuntza- nahiz ikaskuntza-prozesuak hobetzeko tresna izango da.

Ikaslearen ebaluazioak integratzailea izan behar du, eta ikasgai guztietan ikusi behar da etapa horretako helburuen eta kompetentzien betetze-maila. Ebaluazioaren izaera integratzailea ez da oztopoa irakasleek ikasgai bakoitzaren ebaluazio berezia egin dezaten, kontuan hartuz horietako bakoitzaren ebaluazio-irizpideak eta estandar ebaluagarriak edo lorpen-adierazleak.

Ebaluazio jarraitu horretan ikasgairen edo esparruren bateko kompetentziak eskuratu ez dituzten ikasleek ezohiko proba bat egin ahal dute, hezkuntza-eskumenak dituen sailak zehaztutako prozedura eta baldintzak betez.

6.– Ikastetxeek ikasturteko helburu orokorrak, ebaluazio-irizpideak eta mailaz, zikloz edo etapaz igotzeko irizpideak jakinaraziko dizkiete ikasleei eta, ikaslea adingabea denean, gurasoei edo legezko ordezkariari, bai eta aplikatuko diren prozedurak eta ebaluazio-tresnak ere. Ikasturte bakoitzaren hasieran emango da informazio hori, ikastetxeak ezarritako prozeduraren arabera.

7.– Ikasturte bakoitzeko ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren, edo hala komeni denean, tutoreak ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren txostena egin eta haren gurasoei edo legezko tutoreei emango zaie. Txosten horretan jasoko dira arlo edo ikasgai bakoitzeko kalifikazioak, bai eta eskola-errendimenduari, gizarte-heziketako integrazioari eta, hala dagokionean, laguntza- eta indartze-neurri orokorre buruzko informazioa ere.

Ikasturte amaieran, azken ebaluazioaren ondorengo txostenean agertuko da, aurreko lerroka-dan aipatutakoaz gain, oinarritzko konpetentzien eskuratze-maila eta mailaz, zikloz edo etapaz igotzeko edo ez igotzeko erabakia. Gainera, Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetan, banakako ebaluazioaren emaitza sartuko da.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharre buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ikasleak adin txikikoak direnean, gurasoek eta ikasleen legezko tutoreek eskuratu ahalko dituzte ebaluazio-agiri ofizialak eta haien seme-alabei egiten zaizkien azterketak eta ebaluazio-agiriak, ikastetxeko antolakuntza- eta funtzionamendu-arauek ezarritakoaren arabera. Orobat, azalpenak eskatu ahal dizkiete maisu-maistrei eta irakasleei ebaluazio jarraituaren emaitzei buruz, arlo edo ikasgairen baten ikasturte amaierako ebaluazioari buruz, eta mailaz igotzeko edo ez igotzeko erabakiei buruz.

9.– Ikasleak eta, ikaslea adingabea denean, gurasoak edo legezko ordezkariak ados ez badaude jasotako azalpenekin, erreklamazioak egin ahal dituzte maila edo etapa amaieran, ikaskuntzen ebaluazioaren emaitzei buruz eta, ebaluazio-prozesuaren ondorioz mailaz igotzeko edo ez igotzeko hartzen diren erabakiei buruz.

10.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak erabakiko ditu ebaluazio-arauek, eta jarraibideak emango ditu ikastetxeek eta irakasleek beren jarduna ebaluatu ahal izan dezaten.

47. artikulua.– Irakaskuntza-prozesua ebaluatzea.

1.– Irakasleek ebaluatu egingo dituzte ikasleen ikasketak, ikaskuntza-prozesua eta beren irakasle-lana. Horretarako, lorpen-adierazleak ezarriko dira programazio didaktikoetan. Ikasturte bakoitzaren amaieran gutxienez, irakasle-taldeak ebaluazioko emaitzak bilduko ditu, prozesua bideratzeko aldaketak proposatu edo horretarako erabakiak hartuko ditu.

2.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ebaluazio-ereduak emango ditu, ikastetxeek barruko ebaluazioa egin ahal izan dezaten.

48. artikulua.– Hasierako ebaluazioa.

1.– Ikasle-talde bakoitzeko irakasleek ikasleen hasierako ebaluazioa egingo dute etapako maila bakoitza hastean, ikaslearen ezaugarrien eta jakintzen araberrako erabakiak hartzeko asmoz, eta ikasturteko lehen hilabetea amaitu aurreko hasierako ebaluazio-saioaren aktan jasoko dira.

2.– Ebaluazioa osatzeko, aztertu egingo dira aurreko ikasturteko tutoreak emandako datuak eta informazioa, behar duten ikasleei indartze- eta berreskuratze-neurriak emateko, eta programazio didaktikoaren gaineko erabakiak hartzeko.

49. artikulua.– Ikasturte-amaierako ebaluazioa.

1.– Lehen Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran, ikasleek lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa egingo dute talde bakoitzeko irakasleek. Emaitzen balorazioa jasota geratuko da ebaluazio-agirietan, arloan arloko kalifikazioak adierazita.

Ebaluazioaren emaitza era honetan adieraziko da: Kalifikazio negatiboak Gutxiegi (GU), eta gainerakoak Nahikoa (NA), Ongi (O), Oso Ongi (OO) eta Bikain (BI). Horien ondoan joango da zenbakizko kalifikazioa ere, dezimalik gabe, batetik hamarrera. Hain zuzen ere:

Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4

Nahikoa: 5

Ongi: 6

Oso Ongi: 7 edo 8

Bikain: 9 eta 10

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako konpetentzien ebaluazioan, eta ikasle bakoitzari buruzko informazioa jaso ondoren, talde bakoitzeko irakasleek elkarrekin ebaluatuko dituzte ikasleak, tutoreak koordinatuta, eta, hala badagokio, ikastetxeko orientazio-zerbitzuaren aholkuak jasoz. Ikasgai bakoitzaren hasierako kalifikazioa emateko eskumena eta ardura ikasgai hura eman duen irakaslearena da, eta irakasleek elkarrekin hartuko dituzte prozesu horren ondorengo erabaki orokorrak.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazioaren emaitzak honela adieraziko dira: kalifikazio negatiboak Gutxiegi (GU), eta gainerakoak Nahikoa (NA), Ongi (O), Oso Ongi (OO) eta Bikain (BI). Horien ondoan joango da zenbakizko kalifikazioa ere, dezimalik gabe, batetik hamarrera. Hain zuzen ere:

Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4

Nahikoa: 5

Ongi: 6

Oso Ongi: 7 edo 8

Bikain: 9 eta 10

4.– Erabaki nagusiak, mailaz igotzeari buruzkoak barne, ikasturte amaierako ebaluazioaren saioko aktan jasoko dira.

50. artikulua.– Ebaluazio-agiri ofizialak.

Hauek dira ebaluazio-agiri ofizialak:

1.– Lehen Hezkuntzan, espediente akademikoa, ebaluazio-aktak, etapa amaierako eta hirugarren mailako ebaluazio-agiriak, etapa amaierako ebaluazioko mailari buruzko txostena, historia akademikoa, eta, halakorik badago, lekualdatzearen txosten pertsonala dira.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, espediente akademikoa, ebaluazio-aktak, maila bakoitzeko orientabidea, historia akademikoa, eta, halakorik bada, lekualdaketen ondoriozko txosten pertsonala.

3.– Orobat, etapa bakoitzeko azken ebaluazioko agiriak ere agiri ofizialtzat joko dira.

4.– Historia akademikoa eta, halakorik badago, lekualdatzearen txosten pertsonala oinarrizko agiriak dira ikaslearen mugikortasuna bermatzeko.

HIRUGARREN ATALA

IKASLEAK MAILAZ IGOTZEA

51. artikulua.– Mailaz igotzea Lehen Hezkuntzan.

1.– Lehen Hezkuntzako maila bakoitza amaituta, eta ebaluazio-prozesuaren ondorioz, taldeko irakasleek erabakiko dute ikasleek zikloz igaroko duten ala ez, kontuan hartuz, batez ere, oinarriko konpetentzien garapena eta tutorearen iritzia.

2.– Hurrengo mailara edo etapara igaroko da, baldin eta eskuratutzat jotzen badira oinarriko konpetentziak. Halaber, hurrengo mailara edo etapara igaroko da, baldin eta jasotako ikaskuntzei esker maila edo etapa berria aprobetxamenduz jarraitu badezakete ikasleek. Nolanahi ere, ikasleek ikasketak ondo garatzeko laguntza jaso ahalko dute, behar izanez gero.

3.– Aurreko ataleko baldintzak betetzen ez badira, berriro egin behar da maila bera. Neurri hori behin baino ezin da hartu Lehen Hezkuntza osoan, eta harekin batera joango da berriazko indartze- edo berreskuratze-plan bat. Hezkuntza-eskumenak dituen sailaren jarraibideak betez antolatuko du ikastetxeak plan hori.

4.– Mailaz ez igotzeko erabakia salbuespeneko neurria da, eta zailtasunak konpontzeko indartze- eta laguntza-neurri arrunt guztiak agortu ondoren hartuko da. Mailaz ez igotzeko erabakia hartu aurretik, tutoreak ikaslearen gurasoekin edo legezko tutoreekin hitz egingo du.

52. artikulua.– Mailaz igotzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

1.– Etapako maila batetik bestera igotzeko erabakiak ikasleen irakasle guztien artean hartuko dira, kontuan hartuz zenbateraino eskuratu diren etapako helburuak eta konpetentziak.

Errepikatzea salbuespeneko neurria da, eta ikaslearen zailtasunak konpontzeko gainerako indartze- eta laguntza-neurri arruntak agortu ondoren hartuko da.

2.– Ikasleak ikasturte batetik bestera igaroko dira ikasgai guztiak gainditzean, edo ebaluazio negatiboa gehienez bi ikasgaitan dutenean. Ikasturtea errepikatuko dute hiru ikasgai edo gehiagotan ebaluazio negatiboa dutenean, edo Gaztelania eta Literaturan edo Euskara edo Literaturan eta Matematikan dagoenean ebaluazio negatiboa.

Salbuespen gisa, hiru ikasgaitan ebaluazio negatiboa duen ikasle bat hurrengo ikasturtera igaroko da baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

a) Ebaluazio negatiboko ikasgaietatik bi ez izatea aldi berean Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura eta Matematika,

b) Irakasleen iritziz, ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak oztopo ez izatea hurrengo maila arrakastaz gauzatzeko, berreskuratze aukerak dituelako eta mailaz igotzea ona izango delako bilakaera akademikorako.

c) ikasleari artikuluko honen 7. lerrokadako orientabidean proposaturiko arreta-neurriak aplikatzea.

Salbuespen gisa ere, ikasle bat hurrengo mailara pasatu ahal da Gaztelania eta Literatura edo Euskara eta Literatura eta Matematika ikasgaietan aldi berean ebaluazio negatiboa izanda, honako kasu hauetan: irakasleen iritziz ikasleak hurrengo maila arrakastaz gauzatu ahal badu, berreskuratze aukerak baditu eta mailaz igotzeak bilakaera akademikoari mesede egingo badio,

baldin eta ikasleari aplikatzen bazaizkio artikuluko honen 7. lerrokadako kontseilu orientatzailean proposaturiko arreta-neurriak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila desberdinetan izen bera duten ikasgaiak ikasgai desberdintzat hartuko dira. Ikastetxeek 15. artikuluko 9. lerrokadaren arabera eskainitako ikasgaiak ez dira kontuan hartuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan mailaz igotzeko erabakiari begira.

3.– Ikasgai guztiak gainditu gabe hurrengo mailara igarotzen diren ikasleek gainditu gabeko ikasgaietan matrikulatu behar dute, indartze-programak gauzatu behar dituzte, eta programa horien ebaluazioak gainditu behar dituzte.

4.– Mailaz igotzen ez den ikasleak urtebete gehiago eman behar du maila berean. Neurri hori behin bakarrik aplikatu ahal da maila berean, eta gehienez bi aldiz etapa baten barruan. Errepikatzen den bigarren aldia hirugarren edo laugarren mailan gertatzen bada, erregimen arruntean jarraitu ahal da, hemeretzi urte betetzen diren ikasturtearen amaierara arte. Salbuespen gisa, bi aldiz errepikatu ahal da laugarren maila, betiere, etaparen aurreko mailarik errepikatu ez bada.

5.– Errepikapenak ezartzean, nolahi ere, curriculumak ikasleen premietara egokituko dira eta zailtasunak gainditzera bideratuko dira. Horrekin batera banakako plan bat egin behar da, aurreko mailan hautemandako zailtasunak gainditzeko. Hezkuntza-eskumenak dituen sailaren jarraibideak betez antolatuko da plan hori.

6.– Maila errepikatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak ez baditu betetzen hurrengo mailara igarotzeko baldintzak, irakasleek, orientazio-taldeak aholkatuta eta familiari informazioa eman ondoren, dauden aukerei buruz orientabide bat emango du, ikaslearen premiei eta interesei erreparatuta.

7.– Ikasle guztiek helburuak eta konpetentziak eskuratu ahal izateko indartze-neurriak ezarriko dira, arreta berezia jarriz laguntza jasotzeko berariazko premietan. Aldian-aldean eta ikasturte akademikoa amaitzean berrikusiko da banakako neurrien aplikazioa. Heziketa-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, haien jarduera-planek egokitu egiten badute curriculum arlo edo ikasgai batzuetan, plan horrek berak onartu behar ditu mailaz igarotzeko irizpideak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran, orientabide bat emango zaie ikasle bakoitzaren gurasoei edo legezko tutoreei. Orientabide hori banakako eskola-orientazioko txostenean sartuko da.

8.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak banakako arreta-neurriak ezarri ahal ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaierako ebaluazioa gainditzeko ez duten ikasleentzat. Ikasleen emaitzen eta emaitza horietatik eratorritako diagnostikoaren eta informazioaren arabera, ikastetxeek curriculumari eta irakaskuntzari buruzko neurri ohikoak edo ezohikoak ezarriko dituzte. Taldearen edo banakoen emaitzak hobetzeko planak izango dira, familiekin elkarlanean eta hezkuntza-laguntzako baliabideen bitartez ikasleen motibazioa eta ahalegina sustatzeko eta arazoak konpontzeko.

9.– Gurasoek edo tutoreek parte hartu eta babestu egin behar dute beren seme-alaben edo tutoretzapekoen hezkuntza-prozesua, jakin egin behar dute zer erabaki den ikasleen ebaluazioaren eta maila-igoeren inguruan, eta lagundu egin behar dute laguntza- edo indartze-neurriak betetzen.

10.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak erabakiko ditu ikasleak ebaluatzeko eta mailaz igotzeko prozeduraren arauak.

LAUGARREN ATALA

TITULAZIOA

53. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eta ziurtagiriak.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratzeko, amaierako ebaluazioa gainditu beharko da, baita etaparen amaieran 10etik 5 edo gehiagoko kalifikazioa lortu ere. Erdi-mailako Heziketa Zikloetan ikasleak onartzeko prozesuan kontuan hartu ahalko da amaierako kalifikazio hori, onartzeko prozesua arautzen duen arautegian ezarritakoaren arabera.

2.– Laugarren maila amaitzean, ikasleek banakako azken ebaluazio egingo dute, eta bertan ikusiko da zenbateraino berenganatu dituzten kompetentziak.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuak Batxilergora, Erdi Mailako Lanbide Heziketara, Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi-mailako irakaskuntza profesionaletara eta erdi-mailako Kirol Irakaskuntzetara joateko aukera ematen du, horietako bakoitzaren betekizunen arabera.

4.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin eta graduatua lortzen ez duten ikasleek ziurtagiri bat jasoko dute, ofiziala eta estatu osoan balio duena. Azken ikasturtean matrikulatuta egondako ikastetxeak jaulkiko du ziurtagiri hori.